

## **ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, LEHENENGO SAILKAPEN TALDEA, ARGITALPEN ETA ARTE GRAFIKOETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KATEGORIAN, ARGITALPENAK ETA ARTE GRAFIKOAK ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.**

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoren 3. puntu jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), Lehenengo sailkapen taldea, Argitalpen eta Arte Grafikoetako goi mailako teknikarien kategorian, Argitalpenak eta Arte Grafikoak espezialitatean, lan kontratudun langileak sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

**LEHENENGOA.** – Oposizio-faseko ariketak zuzentzea, eta txanda irekiko gaituen behin-behineko zerrenda egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

**BIGARRENA.-.** Zerrenda horiek EHUko enplegu-atarian ([https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite\\_g/euskera/generico\\_login.jsp?prcs=265](https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp?prcs=265)) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

**HIRUGARRENA.** – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gaitutako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

**LAUGARRENA.** – Adierazi behar da interesdunek eskabidean alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagiria eta kopiak aurkeztu beharko dutela erkaketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia.

Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagiria, kautelaz, oposizio fasea gaitutu ez dutenek, baldin eta errekurtsioa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gaitutzea ekar badezake.

Bestalde, UPV/EHUK ofizios aurkeztuko ditu UPV/EHUn zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztagiria, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.

Gainontzeko zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira egiaztagiri bidez, eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

**BOSTGARRENA.** - Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko erregistroetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1eko, 16.4. art.), lege horretako azken xedapenetako zazpigarrenak erregistro elektronikorako ezartzen duen salbuespenarekin (hau da, erregistro elektronikolari dagozkion xedapenak hasiko direla ondorioak sortzen legea indarrean sartu eta bi urteren buruan).

Leioa, 2019ko abenduaren 11

Epaimahaiko idazkaria

Jesús Moro de Arriba